

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Autokontsumoak enpresei eta partikularrei dakarzkien onura zuzenak aztertzeko jardunaldia antolatuko da martxoaren 6an

Izena emateko epea irekia da NLk eta Nafarroako Gradudun eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoak (CITI) antolatutako ekitaldi honetarako

Asteartea, 2019.eko otsailak 26

Heldu den asteazkenean, martxoak 6, "Autokontsumoaren onura zuzenak enpresentzat eta partikularrentzat" deritzon jardunaldia egingen da Civican ekitaldi aretoan. Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko Nafar Lansarek (NL) antolatu du Nafarroako Gradudun eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoarekin (CITI) batera, eta APPA Renovables Energia Berriztagarrien Enpresen Elkarteak emanen du.

Saioak autokontsumoaren alderdi teknikoak, juridikoak eta finantzarioak ulertzen lagunduko duen egiazko eta eguneratutako ikuspegi praktikoa eskainiko die ikasleei, 09:00etatik 14:00etara bitartean, fabrikatzaileen, komertzializatzaileen nahiz kontsumitzaileen ikuspegia eta esperientzia partekatzeaz gain. Energia berriztagarria sortu eta kontsumitzeko modu honen errealitate berria aztertuko da 15/2018 Errege Lege Dekretuaren harira, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen esparru espezifikoarekin batera.

Halaber, jardunaldian parte hartuko du Nafarroako Gobernuko Industria, Energia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiko Azpiegitura Energetikoen Ataleko buru Laura Larrayak "Nafarroan autokontsumoa sustatzeko politikak" deritzon gaiari heltzeko. Bestalde, APPA Renovables Elkarteak 15/2018 Errege Lege Dekretuaren alderdi nagusiak aztertuko ditu, baita bizitoki nahiz industria arloetako autokontsumorako instalazio fotovoltaiakoen arrakasta kasuak, biltegitratze-sistemez hornituriko autokontsumorako instalazioen potentzialtasuna, eta autokontsumoa eta ibilgailu elektrikoa delako binomia ere; energia fotovoltaiakoaren eta mugikortasun elektrikoaren arteko tandemak, alegia.

Autokontsumoak enpresei eta partikularrei dakarzkien onura zuzenei buruz asteazkenean, martxoak 6, antolatuko den jardunaldi honetan parte hartzea, aldeztu aurretik izena eman behar da [esteka honen bitartez](#).